

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

ZUZENKETA TEKNIKOA

EH Bildu udal taldeak urez hornitzeko zerbitzua eskaintzeari dagozkion tasen arau proposamenari ZUZENKETA TEKNIKOA aurkezten dio, UOAREN 93. artikulua oinarri hartuta, idazkaritza orokorrak egindako ohararazpenak kontuan izateko eta horiekin bat etortzeko:

EH Bildu udal taldearen proposamenak honela dio:

1.- Aldatzea urez hornitzeko zerbitzua eskaintzeari dagozkion tasak arautzeko Zerga Ordenantzaren eranskina, 3. atalari (ur hornidura: kuota aldakorra) honakoa GEHITUTA:

Saneamendu zerbitzua emateagatiko tasaren aldaketak ezartzeko, familia unitatearen 2022. urteko errentaren araberrako tarteak erabiliko dira: % 10 igoko zaie Ondasun Higiezinaren gaineko tasa familia unitateko 90.011 € edo gehiagoko urteko errenta izan zuten familia unitateei.

EH Bildu udal taldearen proposamenak honela adierazi behar du:

Aldatzea urez hornitzeko zerbitzua eskaintzeari dagozkion tasak arautzeko Zerga Ordenantzaren eranskina, 3. atalari (ur hornidura: kuota aldakorra) honakoa GEHITUTA:

	€/m ³
ETXEKO ERABILERA: etxe erabilera arrunta etxebizitzan zein ikastetxe, ospitale, koartel eta adinekoen egoitzan, etxe erabilerrako sanitate ura berotzeko talde toki zentralak	0,380547
2022ko urteko errenta 90.011 € ¹ edo handiagoa izan zuten familia unitateek ²	0,418602

Donostian, 2022ko irailaren 1ean.

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldeko bozeramailea

1 Miramon-Zorroagako familia unitateek duten batezbesteko errenta (Hiri ekonomiaren barometroa, 2020).

2 familia unitateetat hartuko da 2014ko urtarrilaren 17ko 3/2014 FORU ARAUAK 97. artikuluan zehaztutakoa.